



AMA ATSEKABETUA



ANOK txiki-txikitatik ezti-
tan entzuten dogun ama-
ren izena; berau baño gau-
za ezitsuagorik, bigun eta
samuragorik, eztogu bizi-
tza guztian aurkitu. Ama-
ren biotzean ipiñi ditu
Jaungoikoak biguntasunik
andienak, samurtasunik go-

zoenak eta erukitasunik zabal eta pozgarrienak.

Eta luřeko amak ain maitagarriak ba'dira, zeruko
Ama, Jaungoikoa'ren eta geure Ama batera dana, asko-
zaz be maitagarriagoa yaku. Maria da amarik onena,
samurana, ezitsuena, erukitsuena. Zergaitik ete yaku
oren maitagari Ama laztan au? Geyen-geyen noski, gu-
gaitik eta bere Seme Jesus'gaitik ainbeste neke-min eta
oñaze ikusi ditualako. Jaungoikoa'k bere Amatzat artu
eban; eta ortik lurtar batek artu leiken goratasunik eta
aintzarik andiena etori yako. Baña Jaungoikoak, bere
aintza ta anditasunetan lez, bere beerapen eta neke
-oñazeetan be laguntzat euki gura izan dau. Jaungoi-
koaren Amak beste deun guztien gañetiko anditasunak
artu ba'ditu, guzti-guztiak baño min eta oñaze andia-
goak eta goñagoak ikusi eta jasan bear izan ditu.

Maria'ren oñaze guztiak Kristo, bere Seme maitearenetatik, datoz. Alde aurretik, azkozaz lenagotik jakin ebezan aren eriotza ta nekaldia. Simon Igarleak Kristo'ren azkena iragañi eutson ezkerro, bere bizitzak ez eban euki pozaldirik, oñaze bako unerik. Añezkero, berak Birjite deunari iragañi eutsonoz, Semearen eskuetara begiratzen eban bakotxean, esku deun arek zulatuko ebezan untzeak gogoratzen ei-yakozan; soñekoak ipintzen eutsozanean, zelan gurutzean bilosik ipiñiko eben gogoratzen ei-yakon; jaten emoten eutsonoan, gurutzean emongo eutsezan beztun eta ozpiña etorten ei-yakozan gomutara.

Batez be, gurutzearen ondoan ikusi ditu Maria'ren biotzak oñazerik goñi-lazgañienak. Ama batentzat non dago naigabe andiagorik bere semea ilten ikustea baño? Ta seme ori berez ona ta maitagaña bada, ta gañera bakaña? Orduan semearen eriotza amarentzat samiñik bizi, aztun eta latzena izango da. Ta seme ori batera seme ta guraso, gizon eta Jaungoiko ba'da, ta gaizkile baten eran, lapur bien artean ama beraren aurean ilten ba'dautse? Orduan Amaren min eta zoritxañak azkenik ez neuririk eztauko. Oña Mariak ikusi bear izan dauana. Seme bakar bat izan dau; eta bera kentzen dautse. Bere Seme ta Egile era batera zan, Jaungoiko ta gizon egiazkoa; eta obendi baten antzera, lapur bien erdian, ilten dabe eriotzarik baltz eta lotsogañienaz; eta ezin dautso ezertan lagundu. Mailuka dabiz boñeruak Jaungoikoaren Semea, gizonik deun eta erubakoena, gurutzean josten; eta areik malukadak ezin asmau-alako miñetan jarten dabe Amaren biotza. Jesukristok artzen dituan irain eta eta miñak Amaren biotzera be artez doaz. Eztago beste ikuskixun samingañiagorik ori baño. Gure biotza be Jesukristo'ren gurutzeko oñaze eta eriotzaz gomutauaz bakañik bigundu eta samiñez betetan ba'da' zelangoa ete zan Maria'ren biotzaren samiña

guztia bere begiakaz aurre-aurrean ikustean? Itxasoaren zabala ta sakona ezin neurtu doguzan lez, ezin geinke Maria'k bere Semearen eriotzean jasan ebana ulertu ez asmau be. Maria'ren oñaze ta samiñak martiri (ziñopa) guztienak baño aundiagoak izan zirala dirauskue ao batez Eleizako guraso guztiak. Martiriak euren miñen artean zeruko sariaren itxaropenez pozik eta alai ilten ziran: Jesukristo'k eurakaitik jasaniko oñazeen gomutak arindu eta gozaten eutsezan euren miñak. Baña Maria-rentzat, non aurkitu poztasunik? Bape atsegiñik bakoa, bape aringairik bakoa zan bere samiña. Jesukristoren naigabe ta oñazeak andienak izan ba'dira, arek gorputzean izan zituen oñaze ta min gustiak jasan ditu Maria'k biotzean: «Batzuk martiri (ziñopa) izan ziran, Jesukristo'gaitik il ziralako; baña Maria'k Jesukristoren oñaze berberak jasan zituan», diño Jeronimo deunak. Berak, Jesukristo gure Erosleak lez esan lei: «Ikusi zuok, bidean zear zoazienok, nirea lako oñazerik edo samiñik non dagoen».

Maria'ren oñazeak, Jesukristo'renakaz batera, gure onerako izan yakuz. Jesukristo'k berak Eroste-laguntzat artu eban bere Ama, gu gaizkapenetik ateratearen; oregaitik euki eban bere ondoan gurutzean egoala, ta bien artean gaizkatu ginduzan, euren oñazeakaz gure zoñak ordaindurik. Oregaitik Jesukristo'ren eriotzea gogoratzen dogun egunotan, eztogu aitzu bear bere Ama samindua. Goazen sañi geure Ama laztan onegaz Jesus'en oñetara, ta berak irakatsiko dauskuz Jesukristo'ren naigabe ta samiñak aztertu ta goznartzen. Goazen, ba, sañi gogoaz beragana, negar egin dagigun beragaz, eta damutu gaitezan bera ta bere semea naigabetu dabena geure obenak izan diralako.

O.